



## SANFERMINAK 2015

### PORTADA LEHIAKETA, HAURREI ZUZENDUA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2015ko Sanferminetako programaren gibelego azala aukeratzeko.

#### ARAUTEGIA

-Azalak: kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

-Neurriak: 25 x 20 cm osotara.

Derrigorrez, bertan agertu behar du: **LESAKA 2015eko SANFERMINAK**

-Gaia: Norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuz .

-Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

-Partehartzaileak: Lesakako ikastetxeetan ikasten ari diren ikasleak, 6 urtetik 12 urte bitartekoak.

-Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre ttiki bat itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezteko epea: **apirilaren 17ko 13:00 orduak arte.**

- Aurkezten diren lan guzietan erakusketa bat osatuko da Beheko Plaza 5eko udal bulegoan, **apirilaren 21tik 25era (biak barne)**, erakusketaren ordutegia webgunean publikatuko da.

-**Herri bozketak** erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute. Honetaz gain web orriaren bidez ere bozkatzeko aukera izanen da.

-Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

-Udalaren esku geratuko da saritutako lana. Bertzeak itzuliko dira.

#### SARIAK

1.a.....**100 euroko bonoa** Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko.

Sariduna programaren gibelego azalean argitaratuko da.

Lesakan, 2015ko martxoaren 16a

Alkateordea

